

Non gogoia, han zangoa. Eta inon ez bada?

Patziku PERURENA*



Liburutegi batean egon beharko luketen bost liburu nere guzizkoenak aipatzeko eskatu didate. Aze xorakeria! Ez baitut fede haundi haundirik liburuetan. Eta neroni aurrena naizela, liburuak ez baina egileak etorri zaizkit segituan burura. Egile izan gabe, liburuak idatzi dituen jende asko baita munduan. Ez, niri egileak intesatzen zaizkit.

Baina, sumatzen al du inork egileon sentiera arrotzik munduan? Nola adierazi orduan, nik zergatik ditudan gogoko, Heraklito, Diogenes, Montaigne, Nietzsche, Jean Etxepare, Orixé, Mirandé, Sarrionandia, Gil Bera eta beste halako bost? Beren bizitza partikularrean eta ondorioz literaturan utzi duten itzal ilun animoso azal ezinezko horregatik, agian? Galde egiten dizut.

69

1.- Lur pusketa bat bihotzean: Ez dakit zein egilek esana den, Orixek, behar bada, edo bestela nik neronek esanen dut, hamabi-hamalau urte arte "lurreko txokoren bateko haur bihurri" izandu ez denak huts haundia izaten duela gero bere nortasunean. Egia da, badira gauzak, lur pusketa humanizatu batean bestetan ikasten ez direnak. Euskaltasun kontziente guziak izan duen hutsik haundiena horixe da: "ser de pueblo" asmatu batek lotsarazi edo ixilarazi ez badu soberaxko liluratu edo itsutu duela.

Eta neretzako, deus bada eta, "ser de pueblo", bere zentzurik zabalenean edo unibertsalenean, nor izatea da, nor bere sentimenturik partikularrenekin borrokan bizitzea, edonoren aurrean nortasun apur bat ukaitea. Eta deustan bada motz euskal literatura, horretan da. Nortasun biziak, nortasun konkretuak, partikulartasun errotuak falta ditu. Bai, NI eskasí haundiko literatura da *gurea*: beti *gurea*, taldekoia, bildurtia, mainontzia, hitz batean: jitoa...

* Prosista y poeta. Autor de obras como *Koloreak euskal usarioan* ("Los colores en la tradición vasca"); *Euskarak orgindutako numeroak* ("Los números embrujados por el euskara"); *Marasmus femeninus. Joanaren gutun aharrak* ("Marasmus femeninus. Las viejas cartas de Joana").

Eta nik uste, gero, lur pusketa hori bihotzean gabe, inongo konbentzioz menperatu ezinezko NI horren indar gailenik gabe, liburutegi batean sartzen dena, hari gabeko jostorraz batekin bere bizia aidean josi nahian ibiltzen dela beti liburuz liburu, munduz mundu, jitoan. Bestela esan: hor hasten dela neretzako modernokeria.

2.- Diogenes Laercio: *Vidas de los más ilustres filósofos griegos*. Baina munduko txoko batean lurtu den bihotz ttipi hori, NI hori, menderik mende, inperioz inperio, guganaino nahastuz etorri diren konbentzio geldotu askoren ondorena baizik ez da. Batek, bere NI hori zailduko badu, beraz, konbentzio jorrea hasi behar, poliki poliki.

Antistenek esaten omen zuen filosofatuz, munduko gauzarik zailena ikasi zuela: "bere buruaz ez fiatzen"; eta zinezko filosofoak ez duela "bere garaiko legepean bizi behar, bere erizpideen arabera baizik". Hekatonek, berriz, esaten zuen, "hobe dela beleen hatzaparretan erortzea, balakugileen eskuetan baino, haiek hildakoen muinak jaten dituzten bezala hauek bizirik daudenenak irensten baitituzte inor oharkabean".

Beste batean, foruan bilduak zeudela, Diogenes eskuari eragiten hasi omen zen sabelpean zakar samar, eta lagunek lotsaturik bezala begiratzean: "hobe nikek otorduero gose hori ere, sabelgaina pittin bat igurtziz aseko banu".

Eta hola beste mila konbentzio jor animaso eta zentzagarri.

70

3.- Michel de Montaigne: *Entseiuak I, II, III*. Ez da helbururik gure ikerpenetan. Ezein gogo eskuzabal ez baita bere baitan gelditzen: beti nahi du eta badoa bere indarrez haratago; aitzinaten eta ahalegintzen, gibelatzen eta behaztopatzen ez bada, erdizka besterik ez da bizirik; bere bilaketak mugarik eta molderik gabek dira; bere janaria mirespena, ikerpena eta zalantza dira.

Ikerpen eta behatze filosofikoez soilik janaritzat balio diote gure jakinahari. Filosofoek, arrazoiarekin, naturaren legeetara igortzen gaituzte; baina ez dakite zer egin ezagutza horrekin; gainera, faltsutzen dute eta kolore eta sofistikazio sobera duen aurpegi batekin agertarazten digute.

Hagitz belarri zorrotzak behar dira nork bere burua zintzoki epaitzen duela entzuteko; eta ausirik gabe jasan dezaketenak guti dira; sendoki maitatzea baita onuraren egiteagatik zauritzearen eta laidostatzearen arriskatzea.

Bizi publikoek beren burua zeremoniari zor diote; nireak, iluna eta pribatua baita, baimen natural eta osoa du. Gogo akalei gertatzen zaie, egitekoen pisuaz itoak, ez dakitela haiengandik libratzen".

4.- F. Nietzsche: *Idazlan guziak*. Ukoa, nork bere gogoko ez dituen gauzak bazter uztea galera da, helburu ezkor edo antzutan galdutako indarra; izanez ere, taigabe geure buruz defenditzen ari beharrak, atzanean geure burua defenditzeko gauza ez izateraino ahultzten baigaitu.

Bere *gustoko* lekuaz, paisajeaz, giroaz arrotzu den hirikumeak, fikziokumeak, hainbesti gauza ukatu behar ditu egunaren buruan, non bere buruari nortasuna ematen diolaki

ustean, ez den ohartu ere egiten, taigabeko ukatze (indargaltze) ergel horrexegatik bera-gatik gelditu dela bere nortasunaren zipitzik ere gabe.

Honetan liburua eta irakurlea, gizartea eta gizartezalea bezalatsu dira. Eruditoak, funtsean liburuak nahasberritu besterik egiten ez duenak, atzenerako arraso galtzen du bere buruz pentsatzeko gaitasuna. Libururik saltsaberritzen ez badu, ezin du pentsatu. Izan ere, pentsatzen duela uste duenean, xistako bati (pentsamentu leitu bati) erantzun baizik ez baitu egiten; eta atzenean bestegandiko xistakoen erantzule huts bihurtzen da; bere indar guzia aurrez norbaitek pentsatutakoari baietz edo ezetz hutsak esaten agortuz.

Horixe da gaurregun, *intelektuala* deitzen den jendilajea, izatez jendemasa taigabe eritzimailearen pareko, baina *itxuraz* jantziago eta *gustoz* askoz ere zamatuago eta nekatuagoa. Eta euskal literatura modernoa arrasatzen duen estiloa ez da horixe besterik: guziz Nietzschez bestekoa. Eta nik gorroto dudan Patziku puskarik haundiena ere bai. Baina nere beste gihar puxka honetatik, Nietzschek eta enparauek gorde nazatela.

5.- Eduardo Gil Bera: *Idazlan guziak*. "Para qué nos vamos a engañar. El que espera mente. Esperando del azar, se engaña; esperando de los demás, adula, amenaza, suplica y finge. También espera y mente cuando calla y está como ausente.

»El desesperado mente. Exagera y arriesga: aún espera.

»El resignado mente. Se adorna con su paciencia: aún espera. El desengañado mente. Dice que ha aprendido: aún espera.

»Mundo tan singular que el vivir es esperar. Espera el rico en su riqueza, espera el pobre en su pobreza, espera el que a medrar empieza, espera el que afana y pretende, espera el que agravia y ofende.

»Y en el mundo en conclusión, todos mienten lo que son, aunque ninguno lo entiende. Para qué nos vamos a engañar.

»Pandora cerró el cofre tras leer la inscripción que habla en el fondo: 'Miente y espera, que mañana morirás'".

Ohartu bazara, nere bost aukerak, kasik pentsamentu hutsezko literaturaz egin ditut. Gezurrik soilduena eta xaloena interesatzen baitzait bizitzan eta literaturan ere. Deusengatik ematen badit nazka modernokeriak, giza gezur betikoa, noblezaz hartzen ez dakielakotz.